

## **Energia, kontsumoa eta natura: ingurugiro hezkuntzako esperientzia bat**

**José Manuel Gutiérrez Bastida,  
Jose Morales Morales,  
Amaia Sarasua Unanue,  
eta SESZko Talde Pedagogikoa**

- **Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako  
Zentroa/Centro de Experimentación Escolar  
de Pedernales**
- 

### **Sarrera: Ingurugiro hezkuntza Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan**

Proposamen hau ingurugiro hezkuntzaren eremuan garatutako esperientzia batetan oinarritzen da. Gure lana Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan (SESZ) kokatzen da, eta zentro hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren eta Bilbao Bizkaia Kutzako Gizarte Ekintzaren artean 1982an sinaturiko lankidetzeta-hitzarmenari esker sortu zen.

Bertako irakasleak garen aldetik, betebeharrak nagusitzat dugu gizarte industrializatuen inguruan sortutako ingurugiro arazoei aurre egiteko estrategia bat garatzea. Izan ere, 1972an Stockholm-eko NBEren Konferentzian Giza Ingurugiroaz esandakoa jarraituz “ezinbestekoa da gazte zein nagusiei zuzendutako hezkuntza lana egitea ingurugiro arloan, pribilegio gutxien dituen biztanleen sektoreari behar besteko arreta ematen diona, ondo informaturiko iritzi publikoaren oinarriak zabaltzeko eta indibiduo, enpresa zein kolektibitateen jokabide arduratsua bultzatzeko inguruaren babesa eta hobekuntzarako, bere gizatasun neurri osoan”. Zentzu beretik doaz besteak beste: Belgradeko Nazioarteko Mintegian (1975), Tblisiko Gobernuen arteko Konferentzian (1977) eta aspaldion hainbeste hedatu diren Rio de Janeiroko Lurraren Gailurrean eta Foro Globalean (1992) egin diren adierazpenak.

Arlo honetan, gure eskolaren lan eremua definitzen duen aurrez aipaturiko hitzarmenak bi helburu nagusi ditu:

- Lurraldeko neska-mutilei ingurune fisiko eta pedagogiko bat eskaintzea, naturara hurbiltzeko eta beraien arteko komunikazioa eta elkarbizitza sustatzeko asmoz.
- Irakasleei esperientzia pedagogikoetarako zein materiala lortzeko aukera bat eskaintzea.

Egonaldian zehar jarduera pedagogikoaren ardatza honako bost Lan-Proiektuetan gauzatzen da: “Baserría eta Nekazaritza”, “Ura”, “Itsasadarra”, “Basoa” eta “Planeta Berdea”.

## Energiaren arazoa ingurugiro hezkuntzan

Klima aldaketa, ozono geruzaren suntsipena, nekazal lurren galera, basamortuen hedapena, basoen hondamendia, bioaniztasun galera, ozeanoen kutsadura, hondakin kantitate handien pilaketa... eta arazo hauekin lotuta errekurtsoen agorpena (errekurtsio energetiko ez berriztagarriena barne) dira besteak beste gaur egun munduak dituen ingurugiro arazo larrienak; eta hauekin batera ere agertzen diren gizarte arazoak: aberats eta txiroen arteko polarizazioaren handipena, gudak eta beraien ondorioak, iparralde-hegoalde arteko erlazio desorekatua...

Ez gaude elkar loturarik gabeko arazo multzo baten aurrean, arazo sistemiko handi baten aurrean baizik. Beraz, arazoen ondorio negatiboetara mugatu beharrean arazoen jatorrian jarri beharko litzateke arreta berezia, hau da, onura eta zerbitzuen produkzio, erabilpen eta kontsumo sisteman, iraultza industrialarekin jaiotakoa eta gaur egun nagusitzen dena, Lurraren Gailurraren inguruan sortutako Brundtland txostenak eta Agenda 21 delakoak aldarrikatzen duten bezala.

Ildo honetatik aurreko mendeko 60ko hamarkadan sortu zen “garapen jasangarri” kontzeptua nabarmendu behar da, batez ere 1987an argitaratutako Brundtland txostenak bere interpretazioa ezaugaraztera eman zuenetik zabaldu zena: “Garapen jasangarria hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko ahalmena murriztu gabe, garaiko belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena da”. Kontzeptu honen zehaztasun eza handia bada ere, ezaugarri hauetan oinarritzen den filosofia bat bultzatzen du:

- Errekurtsio naturalak kontserbatu beharra dago.
- Mugagabeko hazkundea ezinezkoa bihurtzen duten muga fisikoak daude.
- Gizarte helburuen lorpena beharrezkoa da eta ez helburu indibidualena.
- Belaunaldi barruko eta belaunaldien arteko elkartasuna ezinbestekoa da.

## “Planeta berdea” lan proiektua

Idea hauen inguruan sortu eta bilakatzen dira aurrez aipatutako bost Lan-Proiektuak eta horien artean energiaren ekoizpena eta kontsumoarekin lotura handiena daukana, “Planeta Berdea” izenekoak. Ondoko hau da bere xede nagusia: “Gure bizimoduan egiten dugun errekurtsoen erabilere-taz jabetzea eta kontsumo-gizartearen aurrean jarrera kritikoa indartzea, ingurugiroaren suntsipen, errekurtsoen agorpen eta Planetako aberastasun banaketa desorekatuaren aurrean gure ohiturak eta jarrerak zalantzan jarri, irtenbideak bilatu eta konpromisoak hartzeko (maila indibidualean zein kolektiboan”.

Ingurugiro hezkuntzaren azken helburua arazoak konpontzeko erabakiak hartzea eta ekimena bultzatzea baldin bada ere, ezinezkoa da betetzea aurretik problematikarekiko sentsibilizazio, ezaguer-a eta kontzientziazioarekin lotutako helburuak bete gabe. Beraz, honela zehazten ditugu aipatutako xedera hurbiltzeko helburuak:

SENTSIBILIZAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Naturako errekurtsoen erabilpen ezegokiak sortzen dituen ingurugiro arazo eta ondorio latzen aurrean sentsibilizatu.</li> <li>• Natura errekurtsio iturri bezala estimatu.</li> </ul>
EZAGUERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizitzarako beharrezkoak ditugun lehengaien iturria Natura dela antzeman, bere barneko oreka dinamikoaz ohartuz.</li> <li>• Gizakia errekurtsoen kontsumitzaile bezala ezagutu.</li> <li>• Errekurtsoen erabilerek Ingurugiroan eragiten dituzten arazo eta ondorioak identifikatu.</li> </ul>
KONTZIENTZIAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurririk gabeko kontsumoak sortutako arazoetaz jabetu.</li> <li>• Gizaki guztiok errekurtsuak erabiltzeko ditugun eskubideaz eta berauek kontserbatzeko betebeharez kontzientzia izan.</li> </ul>
EKIMENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontsumo-gizartearen aurrean jarrera kritikoa garatu.</li> <li>• Naturarekiko errespetuzko jarrerak eta kontsumo arduratsua bultzatu.</li> </ul>

Proiektuaren helburu hauek sei saiotan garatzen dira hainbat ekintzen bidez. Saio bakoitzak bere xede propioa du eta kontsumoak ingurugiroan duen eragina da guztiak lotzen dituen ardatza:

**1. NATURA ETA ERREKURTSOAK.** Saioa ideia honen inguruan garatzen da: “Neurririk gabe kontsumitzen dugunez naturak arazoak ditu”.

- Ekintzak: naturaren arazoak zehaztu, kontsumitzen dugunetaz hausnartu, Iparraldeko eta Hegoaldeko bi umeren arteko bizimodua alderatu, naturaren errekurtsuak zeintzuk diren ikusi eta edozein produkzio katearen pausoak gogoratu.

**2. ERREKURTSO BAT: BASOA.** Errekurtsu jakin eta hurbil baten ezaugarrien inguruan aritzen gara: bere konplexutasuna eta funtzionamendua, eskaintzen dizkigun onurak eta erabilera bidegabekak dakartzan ondorioak.

- Ekintzak: baso ekosistemaren elementuak behatu, zuhaitzak jolas edo klabeen bidez ezagutu, lurzoruko animaliak ikertu, materiaren zikloa aztertu, basoak eskaintzen dizkigun onurak gogoratu eta erabilpen desegokien ondorioetatik hausnartu. Honez gain papera birziklatzeko tailerra egiten da.

**3. KONTSUMOA ETA ABERASTASUNAREN BANAKETA DESOREKATUA.** Aberas-tasunaren banaketa desorekatuaren arrazoiak eta ondorioak dira saioaren gunea.

- Ekintzak: errekurtsu naturalen banaketa munduko mapan behatu, hegoaldeko herrien txirotasun egoeraren arrazoiak eta ondorioak aztertu (naturako errekurtsuen kokapena, merkataritzaren jabegoa, kanpo-zorra, umeen lana, emakumeen egoera, zerbitzuen eskasia...); beste bide batetik abiatzen diren ekimenak gogoratu (bidezko merkataritza, gobernuz kanpoko erakundeak, %0,7 plataforma...).

**4. PRODUKTUTIK HONDAKINERA.** Saioa ideia honen inguruan garatzen da: “Zabor asko sortzen dugu eta bere trataerarekin natura kutsatzeaz gain, errekurtsuak galtzen dira”.

- Ekintzak: Zenbat zabor sortzen dugun ezagutu. Zabortegian, errausketan eta birziklapenean zaborrari ematen zaion trataera aztertu, prozesu bi gutxienez zuzenean behatuz; eta ondorioetatik hausnartu. Gure eguneroko bizimoduan sortzen den ontzi kopuru handia agerian jartzen duen simulazio jolas bat egin eta ontzi gutxiago erabiltzeko beharraz jabetu.

**5. ZER EGIN DEZAKEGU?** Ikasleek arazoak konpontzeko adierazten dituzten ideiek osatzen dute saioaren mamia.

- Ekintzak: bakarka zein taldean egin daitezkeen gauzetan pentsatu; konpromisoak hartu eta ideia batzuk Sukarrietako zentroan bertan praktikan jarri.

**6. KOMUNIKAZIOA ETA KANPAINA.** Asteaz zehar egindakoa, ikasitakoa eta lortutako ondorioak gainontzeko ikaskideei komunikatzen dizkiete eta honekin batera ingurugiroaren aldeko jarrerak praktikatzera animatzen dituzte.

### • Helburuen garapenaren oinarri teorikoak

Aipatutako plangintza zehazteko eta garatzeko bi zutabe nagusitan oinarritzen gara: Konstruktibismo izenpean biltzen diren teoria pedagogikoan eta Ingurugiro Hezkuntzan.

<p><b>INGURUGIRO HEZKUNTZA:</b> Gure lan eremua Ingurugiro Hezkuntza izanik ezin gara mugatu naturaren alderdi fisiko-naturalak bakarrik aztertzea. Ingurunea konplexua den neurrian kontutan izan behar da faktore ugariaren eragina (ekonomikoak, kulturalak soziopolitikoak,...) eta beraien arteko erlazioak. Ikuspegi honek beste esparru batetara eramaten gaitu, Ingurugiro Hezkuntzak berezkozat duen etikaren alorrera hain zuzen ere. Eta horrek zera esan nahi du, ingurugiro arazoaren konponbidean parte hartu eta ekimenaren behararen aurkitzen garela.</p> <p>Ingurugiro Hezkuntza hiru jardueren maila hauetan jorratzen da: “Ingurunean bertan”, “Inguruneari buruz” eta “Ingurunearen alde”.</p>	<p><b>KONSTRUKTIBISMOA:</b> Konstruktibismoak dienez ikastea pentsamendua eraikitzea da. Horretarako ikasitakoak esanguratsua izan behar du, hau da, zentzuzkoa izan. Lehendik ikasitakoarekin lotu eta beste esparru batzuetara aplikagarria izan behar du. Hori lortzeko ezinbestekoa da ikaslearen aurretiazko ideietatik abiatzea, ezaguera berriak eraiki eta gaitasunak garatzeko, beti ere haren garapen-zona hurbilaren barruan. Ikasuntzak ikaslearen autonomia bultzatu behar du, ikasten ikastea alegia eta ikaslea bere ikaste prozesuetatik jabetzea. Barne prozesu sendo baten bidetik, ikaslea bera izango da bere garapenaren autorregulatzailea eta prozesuaren momentu guztietan non dagoen jakingo du baita nora doan erabaki ere.</p>
---	---

Horrela bakarrik lortuko da ingurugiro hezkuntzaren funtsezko betebeharra: gaur egun zein etorkizunean suerta daitezkeen ingurugiro arazoei aurre egiteko irtenbideak asmatuko dituzten ahalmena duten pertsonen heziketa, eta ez errezeten aplikazio hutsera mugatuko direnak.

### • Naturaren arazoei buruzko aurretiazko ideiak

Lan-Proiektua garatzeko momentuan hainbat baldintza hartu behar ditugu kontutan: Ikasleen jatorria (geografikoa, soziala, kulturala...), adina (9 urtetatik 14 urtetara), eskolaren ezaugarriak (publikoa/pribatua, idearioa, hizkuntza ereduak, tamaina, azpiegiturak...), ikasle talde bakoitzaren aurretiazko ideiak eta eguneko eguneko gorabeherak egonaldian.

Aipamen berezia merezi du ikasleen aurretiazko ideien azterketak. Hona hemen hiru galderen bidez azken urteotan guk jasotakoak, gutxi gorabehera agertzen diren ordenan:

**1. Zer da natura?** Bizidunak (landareak, animaliak...), bizileku edo ekosistemak (basoa, itsasoa, basamortua...), bizigabeak (airea, ura, eguzkia, harriak, lurra...) eta horrelako esaldiak: Betidanik munduan dagoena, gizakiak egin ez duena, Jainkoak egin duena, bizitzeko behar duguna, bizirik dagoen guztia, zaindu behar den lekua...

**2. Zer ematen digu?** Oinarrizko premiekin lotutakoak (janaria –fruituak, animaliak...–, arropa –artilea, larrua...–, oxigenoa, ura...), eraikuntzarako materialak (egurra, harriak...), beroa (eguzkia), energia lortzekoak (petrolioak, elektrizitatea sortzeko ura, egurra...). Batzutan holako erantzunak ere jasotzen dira: jolasteko tokia, alaitasuna, askatasuna, bakea, lasaitasuna... Eta oso gutxitan aipatzen diren artean hondamendiekin lotutakoak daude, zer edo zer gertatu denean bakarrik agertzen baitira eta ez beti (lurrikarak, sumendiak, lur jauziak, uholdeak...).

**3. Zer ematen diogu?** Bizidunen zainketaekin lotutakoak (ura landareei, janaria animaliei, bizilekua abereentzako...), animalien hilketaekin (ehiza, arrantza...), kutsadura, suteak, zaborrak, zaratak... Noiz edo noiz agertzen dira birziklapena, suteak itzali, natura garbitu...

Bestalde, adinaren arabera esan daiteke gazteenengan lehenengo erantzunak nagusitzen direla eta nagusienengan berriz agertzen direla maiztasun handiagoz azkenak.

Ikusten denez neska-mutilek naturari buruz duten ideia positiboa da oso, horrela adierazten dute behintzat lehen eta bigarren galderari erantzuterakoan. Geure jokabideari dagokionez berriz eta hirugarren galderak isladatzen duenak jarraituz positibotik negatibora pasatzen da adinarekin. Aldaketa prozesu honetan, besteak beste, bizilekuak eta eskolak duten eragina ere nabaria da.

Energiari buruz ikusten da ez dela lehenengo erantzunen artean azaltzen, batzutan ez dute aipatu ere egiten. Honen aurrean esan daiteke:

- Ez dutela beraien bizitzarako premiazko beste beharrezanekin lotzen edo,
- Ez dutela pentsatzen/gogoratzen energia naturatik lortzen dela edo,
- Ez dituztela natura, bizitzeko beharrezanek eta energia elkarrekin erlazionatzen.

Informazio guztia jaso eta aztertu ondoren, moldatzen dugu saioen planifikazioa talde bakoitzaren beharretara.

## Energiaren kontsumoa “Planeta berdea” lan-proiektuan

Lan-Proiektuaren ardatz nagusia kontsumo-gizarteak ingurugiroan duen eragina izanik, ikus dezagun nola txertatzen den ardatz horretan energiaren kontsumoari buruz lantzen dugun ikuspegia. Ingurugiro Hezkuntzari dagozkion lau arloak kontutan izanik horrela adierazten dira:

**SENTSIBILIZAZIOA.** Ikasleak gaien murgiltzeko energiaren kontsumo hazkorrek ingurugiroan dituen ondorioetara hurbiltzen gara. Alde batetik, ohizko energia iturriek sortzen duten kutsadura gogoratzen da eta, bestetik, horrela jarraituz gero gerta daiteken errekurtsoen agorpenari buruz hausnarketa egiten dugu.

**EZAGUERA.** Munduko errekurtsio energetiko ez berriztagarrien banaketa behatzen da.

Energia kontsumoaren hazkundearen zergatiak aztertzen dira:

- Edozein kontsumo produkturen fabrikazioan energia gastatzen da. Fabrikazioa gorantz doan neurrian energiaren gastua ere bai.
- Produktu hauek hondakin bihurtzen direnean trataera berezia eskatzen dute, energia gastatzen duena. Zaborra gorantz doan neurrian energia gastua ere bai.
- Bestalde, hainbat zerbitzuri lotuta doan energiaren kontsumoa ere gorantz doa, zerbitzu horien hedapenarekin (argia, berogailua, garraioa...).

Energia ez berriztagarrien ekoizpen sistemek kutsadura sorten dutela ikusten da.

Birziklapenarekin fabrikazio prozesu batzuetan energia gutxiago gastatzen dela aztertzen da.

Beste energia iturri batzuen ezagupenera hurbiltzen gara, garbiagoak izan daitezkeenak eta errekurtsioen aurrezpena bultzatzen dutenak.

**KONTZIENTZIAZIOA.** Arlo honetan ikasleek bere burua energia kontsumitzailetzat ezagutzen dute, beraien energiaren erabilpenaren ondorioetaz jabetzen dira eta beraz ingurugiroan sortutako arazoan barne ikusten dira. Arazoan barne daudela ikustean irtenbideen parte direla ohartzen dira eta arazoak konpontzeko proposamenak aurkezten hasten dira.

**EKIMENA.** Egin daitezkeen gauza orokorrak edo hipotetikoak proposatzearekin batera, ikasle beraiek etxean, eskolan eta lagun artean egin ditzaketen proposamen konkretuak egiten dituzte, azkenean benetan egingo dutenera iristen direlarik, hau da, konpromezu pertsonalera.

Hona hemen ikasleek adierazten dituzten ideiak aipaturiko hiru mailatan sailkatuta:

**Zer egin daiteke?** Ez kutsatu, energia gutxiago gastatu, produktu gutxiago kontsumitu...

**Zer egin dezakegu etxean, eskolan edo lagun artean?**

- Bainatu ordez dutxatu; iturria itxi haginak, aurpegia, eskuak... xaboi zerakoan; itxi iturria amaitutakoan; ikuzgailua eta ontzi-garbigailua guztiz beteta bakarrik jarri martxan...
- Argiak itzeldu behar ez direnean; telebista, bideoa, musika aparailuak... itzali erabili ondoren; berogailuaren termostatoa beharretara egokitu...
- Gure produktuen kontsumoa murriztu: behar duguna bakarrik erosi; jostailuak, diskoak, liburuak... elkarren artean trukatu; gutxi ontziratutako produktuak erosi eta guk geuk prestatu janariak, freskagarriak eta abar; papera ondo aprobetxatu; gauza guztiak ondo zaindu eta apurtzen direnean zaborretara bota beharrean konpondu...
- Gauzak berrerabili: arropak txikiak geratzen zaizkigunean beste bati eman eta besteenak jaso; kutxak, potetak eta abar gauzak gordetzeko, kontserbak egiteko... erabili.
- Birziklapenean parte hartu: etxean zaborrak bereiztu eta dagokien edukinontzietara bota.
- Kotxearen ordez garraio publikoa, bizikleta... erabili.
- Agintariei eskatu eguzki energia, energia eolikoa eta abarren erabilera bultzatzea.
- Ikasitakoa senideei, lagunei, ikaskideei... kontatu.

**Zer egingo dugu?** Eskolan bertan ikasle taldeak aukeratutako ekintza konkretu batzuk (ontziekin jostailuak egin, sukaldetan madalenak prestatu, zabor biltzea selektibo bat burutu, sentsibilizazio kanpaina garatu...) egiten dituzte eta honetaz gain, bakoitzak gerorako dituen asmoak adierazten ditu, hau da, zer ekintza eramango duen aurrera adierazten du.

## Gure balorazioa

Hainbat ikasturteetan ikasleekin izandako esperientziak zera erakusten digu:

- Ikasleek ondoen barneratzen dituzten ideiak birziklapenarekin lotutakoak dira. Honen arrazoiak hauek izan daitezke: batetik, gaur egungo gizartean beste arlo batzuetatik birziklapenari ematen ari zaion garrantzia eta bestetik, birziklapenarekin lotutako ideiak praktikan jartzeak, ahalegin berezia eskatzen badu ere, ez dituela sustraitik aldarazten gure oinarritzko kontsumo-ohiturak.
- Kontsumo murrizketarekin eta energiaren aprobetxamendu egokiarekin zer ikusia duten ideiak dira oihartzun gutxien aurkitzen dutenak gure ikasleengan, lehenengo momentuan behintzat.

Honen zergatia izan daiteke norberaren kontsumo-ohituren aldaketa sakona eskatzen dutela eta gainera gaur egun komunikabideetatik hedatzen diren beste hainbat arloetako (ekonomia, politika, kultura...) mezuen kontrako norabidean doazela.

- Ingurugiro arazoak, energiarekin lotutakoak barne, elkar erlazionaturik eta bere osotasunean ulertzeak planteamendu konplexu bat egitera behartzen gaitu, gure ikasleei egokitzea erreza izaten ez dena, beraien adina kontutan izanda. Baina bestalde, arazoan sinplifikatuta aurkeztuko bagenu errealitatekin urrunduko ginatke eta gure lana larri anekdotiko, moralista, utopiko... bihurtzeko arriskuan jarriko genuke.
- Proposamen honek kontsumo-gizartearen inguruan garatuta eginik energiaren kontsumoan jarren du arreta berezia, eta ez horrenbeste energia iturri berriztagarrietan. Dena den ingurugiro hezkuntzatik bereziki energiari buruzko programa zabal bat garatzekotan, energia iturri berriztagarrietara gehiago hurbiltzea komeniko litzateke. Beti ere, energiaren arazoa beste ingurugiroko arazoan artean kokatuz, irtenbide globalak bultzatzeko eta norberaren inguru hurbiletik hasita.

## Bibliografia

- COLL, C. (1997): *"Aprendizaje escolar y construcción del conocimiento"*. Barcelona. Paidós Educador.
- EUSKO JAURLARITZA (1992): *"Diseño Curricular Base. Líneas Transversales"*. Gasteiz.
- JORBA, J, y SANMARTÍ, N. (1993): *"La función pedagógica de la evaluación"*. Aula, 20. zenbakia.
- MARTÍNEZ, J. (1996): *"Educación ambiental en Euskadi. Situación y perspectivas"*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzak.
- MINISTERIO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES, (1999): *"El libro blanco de la educación ambiental"*. Madril.
- NOVO, M. (1998): *"La educación ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas"*. Madril. Universitas.
- SESZ (1996): *"50 proposamen basoa ingurugiro ikuspegiatik ikertzeko"*. Bilbo. BBK Fundazioa - Eusko Jaurlaritzak.
- SESZ (1998): *"Aurretzeko ideiak eta ingurugiro-hezkuntza"*. Bilbo. BBK Fundazioa - Eusko Jaurlaritzak.

### **ENERGIA, CONSUMO Y NATURALEZA: UNA EXPERIENCIA DE EDUCACIÓN AMBIENTAL**

Esta experiencia, dirigida al alumnado y profesorado de Primaria y Secundaria de Bizkaia, se realiza en el Centro de Experimentación Escolar de Pedernales (CEEP -acuerdo de colaboración entre BBK y Gobierno Vasco, 1982-) y se enmarca en la necesidad de impulsar actitudes responsables para la protección y mejora del medioambiente.

Cambio climático, desertización, deforestación, pérdida de biodiversidad, contaminación..., así como el agotamiento de recursos, son actualmente los problemas medioambientales más importantes y unido a éstos el incremento de las desigualdades en el reparto de la riqueza. Estamos ante un problema sistémico que nos obliga, no sólo a intentar paliar sus consecuencias, sino a analizar y actuar sobre sus causas.

La propuesta educativa del CEEP se concreta en cinco Proyectos de Trabajo: *Agua, Ría, Bosque, Caserío y agricultura y Planeta Verde*. En este último reflexionamos sobre nuestra vida cotidiana para potenciar una actitud crítica ante la sociedad de consumo, cuestionando hábitos y actitudes para buscar alternativas a los problemas medioambientales mencionados, siguiendo el concepto del desarrollo sostenible.

Las actividades relacionadas concretamente con el consumo energético se insertan en las sesiones en los distintos planos de sensibilización, conocimiento, concienciación y acción que incluye el programa.

Esta experiencia muestra que nuestros alumnos/as interiorizan fácilmente el concepto de reciclaje, y más difícilmente, lo relacionado con la reducción del consumo y aprovechamiento energético. Nos indica además, que cualquier programación en torno al problema de la energía debe incluir su relación con los demás problemas medioambientales y en toda su complejidad. Así mismo apunta hacia un acercamiento a las fuentes de energías renovables para impulsar alternativas globales, comenzando siempre desde el entorno más próximo.